

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

1773

EBAZPENA, 2025eko apirilaren 16koa, Hezkuntza Politiketako sailburuordearena, udal haur-eskolei 2024-2025 ikasturterako emandako dirulaguntzak jakinarazten dituen.

2024ko abenduaren 27ko EHAAn argitaratu zen Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urriaren 15eko Agindua, 0 eta 3 urte bitarteko haur-eskolen titular diren toki-korporazioentzako 2024-2025 ikasturterako dirulaguntzak iragartzen dituena.

Agindu horren hamaikagarren oinarriarekin bat etorritik, Hezkuntzako sailburuordearen ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizatua egingo ez zaienik.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Hezkuntzako sailburuaren 2024ko urriaren 15eko Aginduaren babesean emandako dirulaguntza guztiak eta haien onuradunak jakinaraztea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.— Ebazpen hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 16a.

Hezkuntza Politiketako sailburuordea,
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO.

ERANSKINA

EMANDAKO DIRULAGUNTZAK

Araba	Valdegovía/Gaubea	27.270,52
	Vitoria-Gasteiz	1.135.977,00
Bizkaia	Barakaldo	311.837,47
	Portugalete	221.610,36
Gipuzkoa	Andoain	230.742,79
	Aretxabaleta	194.672,79
	Irun	232.754,11
	Oiartzun	390.872,38
	Ordizia	167.437,07
	Pasaia	88.035,65
	Usurbil	217.988,94